

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak ikusteko gaitasunik ez duten edota jada ikusteko zailtasunak dituzten pertsona itxuak izango dira. Gehiago zehaztuz, bere eguneroko bizitza erraztu nahi duten pertsona itxuak izango dira, gehiago mugitzea eta bidaiatzea ahalbideratuz. Hala nola, zapatila hauen bitartez eguneroko bizitzan erosotasunean bidaiatzeko aukera emango zaie.

Bezero guztien artean, giza talde ezberdinen bereizketa egin dezakegu haiek zapatila hauekiko duten beharraren arabera. Hatseko ezer ikusteko gaitasuna ez duten pertsona itxuek daude, eta proiektua hasiera batean pertsona hauei dago bideratuta eta horregatik hauen bizimodua ahalik eta gehien erraztea izango da zapatilen helburu nagusia. Behin hau lortuta bigarren giza talde batentzat bidera ditzakegu zapatilak, oraindik ikusteko gaitasuna duten baina osotasunean ikusten ez duten pertsonentzat. Hauek, begi bakar batetik ikusten duten edota jada adinaren poderioz bista galtzeko arriskua duten pertsonak izango dira.

Bestalde, esan beharra dago, gure bezeroak hirietan bizi diren pertsonak izango direla, hau da, gure proiektuaren funtzionamendu orokorra hiri garatu bateko erliebea ezagutzeko egongo da garatua, ez mendietako erliebea ezagutzeko, hasiera batean behintzat. Proiektuak arrakasta izatekotan, beste eremuetan erabil dadin prestatu ahal izango genuke.

Azkenik aipagarria da, gure bezeroak edota erabiltzaileak mota eta adin guztietako pertsonak izango direla. Hasieran batean, proiektuak arrakasta lortzen duen artean, lehentasuna pertsona itxuei emango zaie eta behin proiektuak arrakasta izanda, pertsona guztientzako bideratuko da.